

NAZIOARTEKO NEGOZIOAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

2016/2017 IKASTURTEKO

HASIERAKO IKASGAIA

HIZLARIA:

JOSÉ LUIS IRIARTE ÁNGEL IRAK. DK.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO

NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUKO KATEDRADUNA

NAZIOARTEKO NEGOZIOAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

2016/2017 IKASTURTEKO

HASIERAKO IKASGAIA

HIZLARIA:

JOSÉ LUIS IRIARTE ÁNGEL IRAK. DK.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO
NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUKO KATEDRADUNA



Iruñean, 2016eko irailaren 9an

Argitaratzailea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Koordinazioa: Komunikazio Zerbitzua
Fotokonposizioa: Pretexto. pretexto@pretexto.es
Inprimatzailea: Ulzama Gráficas
Lege gordailua: NA 1583-2016
Banaketa: Argitalpen Atala
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadiko campusa
31006 Iruñea
Faxa: 948 169 300
Posta: publicaciones@unavarra.es

Nafarroako Foru Erkidegoko lehendakaria,
Errektore jauna,
Agintari agurgarriak,
Unibertsitateko Komunitateko kideak,
Jaun-andreak:

Unibertsitateen tradizio antzinakoen eta sustraituenen arteko bat honako hau da: egun seinalatuak iristen direnean (ikasturtearen hasiera, patroien ospakizun-jaiak, eta abar), Unibertsitateak gizarteari beren ekarpenak eta lanak adierazi eta erakustea. Duela minutu gutxi batzuk, idazkari nagusiak irakurri digu joan den urteko ikasturtearen txostena, eta adierazten zigun irakaskuntzan, ikerketan, emaitzen bestetartzean eta abarretan egin den lan itzela. Antzeko asmoa dauka, baita ere, hasierako irakasgai honek, zeinaren helburua baita katedradun batek unibertsitate komunitateari, eta gizartea denez bere baliabideekin unibertsitateari eusten diona, baita gizarteari ere, bere ikerketen garapenaren eta iritsi den ondorioen berri ematea.

Hamarkada gutxi batzuk direla, gizarte-errealitate garrantzizko baten eta jurisprudentziako praktikaren harira, doktrina nazioarteko negozioen eta giza eskubideen arazoa aztertzen hasi zen. Azterketa hau Estatu Batuetan hasi zen, eta dezente geroago Europaraino zabaldu zen. Baina gaur egun Europar Batasunean kezka handia dago gai hauek direla-eta. Hain handia non horri buruzko ikerketa

eta transferentzia proiektu handi bat finantzatzen baitu, zeinean Batasuneko 13 erakundek hartzen baitugu parte, Foru Komunitateko bi unibertsitateak tartean¹.

I. Zenbait kasuren azalpena

Ukitu nahi ditugun arazoak zein diren ulertzeko, ezinbestekoa da bereziki esanguratsuak diren kasu batzuk aipatzea².

Esaterako, *Talisman* auzian egoera hau gertatu zen: *Talisman Energy Inc.* petrolio eta gasaren multinazional kanadar bat zen, 1998an Sudanen interes handiak zeuzkan *Arakis Energy* enpresa erosi zuena; zehatzago esateko, *Greater Nile Oil* proiektuan parte hartze handia zeukan. Une hartan Sudango bigarren gerra zibila gertatzen ari zen. Gerra horren bidez Al-Khartungo gobernuak garbiketa etniko bat egin nahi zuen musulman ez zirenen aurka, batez ere Hego Sudango kristau eta animisten aurka. Gobernu harentzat, petroliotik ateratzen zituen diru-sarrerak ezinbestekoak ziren gerra-ahaleginari eusteko. Eliza presbiterianoak aurkeztu zuen salaketaren eta Kanadako administrazioaren zenbait txostenen arabera, *Talismanek* lagundu zion Sudango gobernuari zenbait populazio-lekualdatze masibotan, herrixkak suntsitzean eta are hilketa eta bahiketetan; halaber, bere lur hartzeko pistetako bat utzi zion populazio zibilaren aurka aritzen zen abiazio militarri. Beste alde batetik, gerra eta errepresio ekintza hauek denek *Talismanen* erauzketa eta garraio lan guztiak erraztu zituzten.

Aurreko kasuaren antzekoa da *Unocal* kasua. Enpresa iparamerikar honek, Frantziako *Total* enpresarekin batera, lankidetzan proiektu bat zeukan Myanmar gobernuarekin, aipatu herrialdeko eskualde batean oliobide bat eraiki eta ustiatzeko. Bi enpresek zekiten, edo gutxienez zalantzarik gabe, Estatu Batuetako auzitegi federalen arabera, *Unocal* enpresak zekien, Myanmar armadak, eskualdeko biztanleak hil, torturatu eta bahitzeaz gain, behartuta errekrutatu zituela langileak, esklabotza baldintzetan, oliobidea eraikitzeko.

1. www.humanrightsinbusiness.eu.

2. Lan honen nolakoa kontuan hartuta, gaiari buruz dagoen doktrina ugariaren barruan, aipu bibliografikoak ahalik eta gutxien izango dira, adierazpenari eutsi ahal izateko. O. Martín-Ortega, *Empresas Multinacionales y Derechos Humanos en Derecho Internacional*, Bartzelona, 2007, 69 or. eta hurrengoak. F. J. Zamora Cabot, «Desarrollo sostenible y empresas multinacionales: un estudio sobre los acaparamientos de tierra (Land Grabbing) en clave de responsabilidad», *Papeles el tiempo de los derechos*, 2015, 4. zk. V. Camarero Suárez, F. J. Zamora Cabot, «El derecho humano al agua y al saneamiento y las empresas multinacionales: casos seleccionados», *Papeles el tiempo...*, 2016, 2. zk.

Ez dira bakarrik enpresa erauzle eta energetikoak honelako aferetan sartuta daudenak, baina litekeena da haiek izatea jokabide larrienak eduki dituztenak. Obra publikoa, nekazaritzako elikagaien sektorea edo turismoa bezalako eremuetako erakundeek praktikatu ohi dute lur-metaketa. Esaterako, *Tate and Lyle* kasuan gertaera hauek jazo ziren: 2006an, Kanputxeko gobernuak nazionalitate hartako bi azukre-konpainiari eman zizkion emakidak; konpainien jabeak, ordea, Tailandiako enpresa bat, Taiwaneko beste bat eta Kanputxeko bertako goi mailako kargu politiko bat ziren. Emakida horiek direla-eta, 4.000 bat nekazari beren lurretatik erauziak eta kanporatuak izan ziren, bortxaz; beren uztak eta jabetzako lurak suntsitu zituzten eta alde zuzenetik ez zitzaizkien inolako kontsultarik, ez eta kalte-ordainik eman ere. 2009an, emakida-hartzaileek bost urteko hornidura kontratua egin zuten *Tate and Lyle* enpresa britaniarrarekin.

Loliondo aferak turismoaren alorrera garamatza. *Loliondo* Tanzaniako Masai etniakoen lurralde aspaldikoa da. Izan ere, Serengetiko fauna basatia eta ingurumena babesteko legedia aitzakia hartuta, Tanzaniako gobernuak Masai etniakoen betiko lurraldeen zati handi bat bereiztu nahi izan zuen. Horrek esan nahi zuen etnia hartako 40.000 bat pertsona kanporatuko zituztela beren bizitokietatik. Nekez justifikatzen ahal zen neurria aintzat hartzen ari zen legedia kontuan hartuta, Masai herriak, bere artzaintza-eredu bereziarekin, betitik lagundu baitu oreka ekologikoa lortzen eta gordetzen, ez duelako animalia basatien bizimodua inola ere oztopatzen. Ikerketa xeheago batek erakutsi zuen operazioaren azken helburua zela erreserba bat ezartzea, Persiar Golkoko Estatu bateko errege-familiarekin loturak zeuzkan enpresa batek luxuzko safariak antola zitzaizkion.

Ez dute kezka txikiagorik eragiten nekazaritzako enpresa multinazional batzuen zenbait praktikak, produktu kimiko sail landatuetan erabiltzeari dagokionez. Duela bi urte, Nikaraguako Gorte Gorenak amaiera eman zion, herri hartan, langile talde handi batek zenbait nekazaritza enpresaren (*Dole Food Company*, *Standard Fruit Company*, eta abar) eta enpresa kimikoaren aurka (*Shell Oil Company*, *Dow Chemical*, *Occidental Chemical*, eta abar) ezarritako auzi bati. Auzi honen arabera, nekazaritza enpresek erabili zuten beren bananondoetan, inolako ardurarik gabe eta oso azpiegitura zaharkituak erabiliz, enpresa kimikoek fabrikatutako eta emandako pestizida bat, dibromokloro propanoarekin egindakoa, ondorio psikologikoak, eta kalteak giltzurrun, birika eta gibelean sorrarazten zituena, are heriotza ere. Salatutako zenbait enpresak salatzaileekin adostasunetara iritsi eta auzia konpondu bazuten ere, azkenean bost enpresak kondena eduki zuten. Sortu zen arazo handia izan zen nola betearazi nikaraguarren erabakia kondenatutako enpresen ondasunak dauden edo egon litezkeen beste herrialde batzuetan.

Ezin dugu pentsatu arazo hau Europako iparreko enpresei eta enpresa anglosaxoiei dagokiela bakarrik, gugandik oso gertu dauden enpresak ere ukitzen dituelako.

2011n, Brasilgo Lan Ministerioak Inditex enpresa ikertu zuen, Sao Paulon zeukan hornitzaile bat zela kausa. Hornitzaile hori lizentziarik gabeko fabrika batean aritzen zen, lan-baldintza arriskutsu, osasungaitz eta ez-legezkoetan (langileetako batzuek 14 urte zeuzkaten, eta 16 eta 18 ordu artean lan egiten zuten eguneko). Hornitzaileak Zara etiketa peko jantziak egiten zituen. Brasilgo agintarien arabera, herri hartako azpikontratista haren bezero nagusi Zara Brasil enpresaren luzapen logistikoa baino ez zen. Inditexek kasua itxi zuen, Brasilgo gobernuarekin itun bat eginda, zeinaren arabera ia milioi eta erdi euro ordaindu baitzituen³.

Aipatu ditugun kasu hauek, eta oso ezagunak diren beste askok, esaterako *Kiobel*, edo *Rana Plaza*, non Espainiako ehungintza-enpresa inportanteetako batzuk sartuta egon baitziren, eta beste batzuek, agerian jartzen dute kasuistika oso ugari eta berezia dela, baina kasuak kasu, batez ere agerian jartzen dute enpresa-sektore batzuek joera daukatela zenbait jokabidetan eragiteko. Martín-Ortegarri jarraituz, esan daiteke enpresa batek, harrera egiten dion atzerriko herrialdearekiko eta lehengaiekiko lotura ahula denean, eta beraz bere inbertsioa oso mugikorra denean enpresarentzat abantailarik handiena ematen duten gizarte-baldintzen arabera, joera daukala lan-eskubideak urratzeko, eta gehiegikeriazko lan baldintzak ezartzeko (haur-lana, segurtasunik gabeko instalazioak, instalazio osasungaitzak, soldata irrigarriak eta abar). Praktika hauek ohikoak dira ehungintzaren alorrean eta kirol-produktuen fabrikazioan. Hau bezalako jokabideak egotzi zaizkio *Nike*, *Reebok* edo *Adidas* bezalako enpresei, baita munduko ehungintza-enpresa garrantzizkoenei ere.

Aldiz, ustiatzen duten lehengaiaren kokapenak biziki baldintzatzen dituen multinazionalak, edo erabiltzen duten instalazioaren edo azpiegituraren kokapenak baldintzatutakoek, hau da, erauzketa-multinazionalak (meatzaritzakoak edo petroliokoak), obra publikoak egiten dituztenek eta nekazaritzakoek, askotan jokabide are larriagoak izaten dituzte, esaterako eskubide zibil eta politikoen bortxaketa (populazioen gogoz kontrako desplazamenduak, gobernu diktatorialei laguntza ematea eta are ezartzea, legediaz kanpoko hilketak, e.a.), baita ingurumenaren aurkako atentatu handiak edo masa-toxikazioak ere.

Oro har, kasuistika honen atzean, kasuak agertzea errazten duten baldintza politiko, sozial eta ekonomiko jakin batzuk daude. Enpresak hartzen dituzten Estatuak gobernantza-defizit handia ohi dute; maiz diktadurapean bizi diren herriak dira, bar-

3. <http://www.theguardian.com/fashion/2015/may/12/zara-owner-inditex-fines-brazil-working-conditions-claim>.

ne-arazo larriak dituztenak, zeinean ustelkeria-maila handia baita; ez ohi dute gizarte zibilik, ezta egiazko alderdi eta sindikatu-sistema bat ere, eta askotan gobernuak toleratu egiten ditu multinazionalen jokabide okerrak, non ez baititu bultzatzen edo zuzenean berorietan parte hartzen. Askotan Estatu ahulak izaten dira, ments administratibo, judizial eta ekonomiko handiak dituztenak, multinazionalen botereari aurre egiteko ezinduak. Azkenik, ekoizpenaren deslokalizazioak lagundu egin du arazo hau zabaltzen, batez ere kualifikazio txikiko lan-eskua behar duten alorretan.

II. Kaltetuek zer arazo juridikori eta zer mugari egin behar izaten dieten aurre

Maiz, lehenago aipatu ditugun jokabideetako batek kaltetu dituen pertsonak, kalte-ordain ekonomikoren bat lortu nahi izan dute, pairatutako kalteak arintzeko. Hau da, kalte-galeren ordaina eskuratu nahi izan dute Zuzenbide Pribatuaren eremura joz. Oso litekeena da hauxe izatea, praktikan, daukaten mekanismorik eraginkorren eta operatiboena. Izan litezke beste bide juridiko batzuk, esaterako ekinbide penaletik saiatzeari, baina horiek, gaur egun, ez dira oso eraginkorrak, eta euren azken emaitzak txarrak izaten dira; horregatik, funtsean, ez diete kaltetuen beharrei erantzuten.

Salaketak aurkezteko multinazional erantzuleen erantzukizun zibila eskatzeko, eta are gehiago, horrelako ekinbideetatik emaitza positiboak lortu nahi izateko, arazo faktiko eta juridiko potoloei egin behar zaie aurre, normalean.

Aldez aurretik argi utzi behar da Nazioarteko Zuzenbide Publikoaren tresna klasikoek ez dutela balio praktikorik multinazionalak egiten dituzten giza eskubideen urraketan aurkako ekimenak hartzeko garaian⁴. Egia esateko, ez dute halako kasurik aurreikusten, edo bazterretik baino ez. Gai honi buruzko nazioarteko konbentzioek Estatuak derrigortzen dituzte, batez ere, eta hauen partikularrenganako jarduerak estatuaren mugen barruan baizik ez dira burutzen. Era berean, nazioarteko agentziek gai hauetan daukaten gaitasun praktikoa oso txikia da, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Auzitegiek jurisdikzioa daukate, funtsean, auzitegiak berak sortu dituzten hitzarmenak sinatu dituzten Estatuaren aurkako salaketak ebazteko. Hori horrela, ematen du praktikoena dela Estatu barneko auzitegiak jotzea.

4. N. Zambrana Tevar, «Shortcomings and Disadvantages of Existing Legal Mechanisms to Hold Multinational Corporations Accountable for Human Rights Violations», *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2012, 4. lib., 2. zk., 398. or. eta hurrengoak.

Hala ere, oso aintzat hartzekoa da maila honetako auzi batek aldez aurretik arazo oso garrantzizko batzuei aurre egin behar izatea dakarrela, auzi hauek luzeak, gares-
tiak eta alderdi guztietatik oso konplexuak izaten direlako. Honela, salaketa aurkez-
ten dutenek hasieratik erronka zailei egin behar diete aurre, eta haientzat bereziki
zailak izaten dira, beren baldintzak direla-eta: froga egituratzea, funts ekonomikoak
biltzea, ordezkatuak dituzten abokatuak edo beste hainbat gaitako adituak kontrata-
tzea, aholkularitza izateko eta froga prestatzeko, eta abar.

Kalteak gertatu diren herrialdeko auzitegietan salaketa aurkeztearen aukera, kasu
gehienetan ez da errealista izaten. Lehen esan dugun bezala, adibideak ere jarritz,
ez da ohiz kanpokoa multinazionalak hartzen dituzten Estatuak multinazionalekin
lankidetzan aritzea edo gutxienez beren jokabideak toleratzea, eta finean, elkarri
laguntza ematea. Gainera, herrialde haietako jurisdikzio-sistemak akastunak izat-
en dira, alderdi guztietatik. Baina tokiko epaileek salatzaileen eskaerak onartu eta
tramitatzen dituztenean eta, are, erantzun egokia ematen dutenean ere, salatzaileek
arazo juridiko funtsezko bati aurre egin behar izaten diote, hau alegia, jurisdikzioa
lurrealdekoa dela. Horren ondorioz, sententziak zer Estatutan eman diren, Estatu
horretako lurraldean dute eragina, bakarrik, eta horregatik, askotan, sententziak
atzerrian onartu eta betearazteko arazo larriari egin behar izaten zaio aurre. Bananon-
doen langileen pozoitze masiboarengatik nekazaritza enpresa eta enpresa kimikoak
kondenatu zituen Nikaraguako Gorte Gorenaren sententziaren kasura itzuliz, hauxe
ikusten dugu: salatzaileak, beren aldeko sententzia lortu eta gero, saiatu dira senten-
tzia egikaritzen atzerriko hainbat herrialdetan, eta ikusten ari da hagitz lan zaila dela
hori, enpresa multinazionalak daukaten egiturarengatik.

Izan ere, egitura hori bera oztopo handia izan ohi da beste edozein Estatutako auzi-
tegietan salaketa aurkeztu nahi denean (talde multinazionalaren buru egiten duen
enpresaren helbidea izan daitekeena, edo eskumendeko batena, eta abar). Izan ere,
multinazionalak beren interesak ahalik eta gehien babesteko moduan antolatzen dira⁵.
Hainbat sozietatek osatzen dute multinazional bat, eta bakoitzak bere nortasun juri-
dikoa eta bere nazionalitatea dauzka. Askotan burua den enpresak kontrolatzen ditu
eskumendekoak zerga-paradisuetan kokatutako sozietate instrumentalen bidez, edo
Elkarte Zuzenbide opakoa dutenetan. Beste kontrol mekanismo batzuk *–trust* dire-

5. B. Stephens, «Extraterritoriality and Human Rights after Kiobel», 28, *Md. J. Int'l*, 256, 2013.
M. C. Marullo, F. J. Zamora Cabot, «Transnational Human Rights Litigations. Kiobel's Touch and
Concern: a Tets Under Construction», *Papeles el tiempo de los derechos*, 2016, 1. zk. P. I. Blumberg,
«Accountability of Multinational Corporations: The Barriers Presented by Concepts of the Corporate
Juridical Entity», 24, *Hastings Int'l & Comp. L. Rev.*, 297, 2000-2001.

lakoak, bitarteko pertsonak, e.a.– ahaztu gabe. Modu honetan, oso zaila da talde multinazionalen enpresa bati ordainaraztea taldeko beste enpresa baten ardurak: burua den enpresak ez ditu eskumendekoen ardurak onartzen, ezta hauek elkarren ardurak ere. Egitura multinazional baten «errezela altxatzea» oso beharrezkoa izango balitz ere, talde guztia talde bakar bat bezala tratatzea ahalbidetuko lukeelako, eta beraz taldeko enpresa guztien artean nolabaiteko erantzukizun solidarioa jarriko lukeelako, une honetan lan ia ezinezkoa da, eta auzitegiek oso bakanetan baino ez dute egin lan hori.

Oztopoak are handiagoak egiten dira salatu nahi direnean multinazional baten hornitzaileen edo azpihornitzaileen kateak; izan ere, hauek gehiago dira multinazionalaren luzapen logistiko edo produktibo bat erakunde independenteak baino, beren independentzia formala baita, egiazkoa baino gehiago.

III. Balizko irtenbide juridikoak

Nazioaz haraindiko enpresek giza eskubideak urratzeak dakarren kasuistika zabalaren adibide batzuk ezagutu eta gero, eta biktimek aurre egin behar dieten arazo juridikoak nolakoak diren eta zein mugatuta dauden ikusi eta gero, garaia iritsi da adierazteko zein diren mekanismo juridiko behinenak enpresen ekintza horiek galarratzeko, eta kaltetuek nolabaiteko ordaina jaso dezaten saiatzeko.

1. *Esparru global bat: Nazio Batuen Jarraibide Nagusiak enpresei eta giza eskubideei buruz*

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 17. bilera-aldiaren barruan, John Ruggie Ordezkarari Bereziaren Txostena eta «Jarraibide Nagusiak enpresei eta giza eskubideei buruz» aurkeztu ziren⁶. Garrantzi nabarmena daukan dokumentu bat da, mundu mailako erreferentzia bat sortu nahi duenez gero, nahiz eta muga juridiko handiak dituen.

Aldez aurretik, argi utzi behar da ez direla Nazioarteko Zuzenbidearen arau lotesleak. Berez enpresentzako jarraibide erabilgarriak dira, erakusten dietelako nola

6. A/HRC/17/31. N. Zambrana Tevar, «Los principios rectores de las Naciones Unidas sobre las empresas y los derechos humanos», *La responsabilidad de las multinacionales por violaciones de los derechos humanos, Cuadernos Democracia y Derechos Humanos*, 9. zk., Alcalá de Henares, 2013, 41. or. eta hurrengoak.

jokatu behar duten beren jarduerak giza eskubideak zaintzeak eskatzen duenarekin bat etor daitezten. Gainera, ez da bazterrean utzi beharrekoa etorkizun gutxi edo gehiago hurbil batean Estatuak beren barne legedietan sartzea, edo lotesleak diren nazioarteko hitzarmenetan sartzea.

Beste alde batetik, oso kontuan hartu beharrekoa da, lehen ere esan dugun bezala, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek Estatuak, eta bakarrik Estatuak jartzen dizkietela betebeharrak, Nazioarteko Zuzenbide Penaleko testu batzuk alde batera utzita. Hala ere, errealitatea da ezen, ikusi dugun moduan, Estatuak ez diren eragile pribatuek urratzen dituztela askotan eskubide horiek. Izan ere Estatuak, munduko zenbait eskualdetakoak batez ere, beren barne araudien bidez, giza eskubideak babesten saiatzen dira, eta partikularrek zain ditzaten nahi izaten dute, baina orain arte egon diren irtenbide juridikoek ments handiak dauzkate, edo ez dira eraginkorrak, argi eta garbi esanda, helburua denean giza eskubideak errespetaraztea atzerrian ari diren edo beren mugetatik kanpoko hornitzaileei ondasunak eta produktuak erosten dizkien multinazionalak.

Idea hauetatik abiatuz, Nazio Batuen dokumentua hiru funtsezko hastapenetan edo jarraibide nagusitan oinarritzen da. Hiruen berri ematen da Hitzazurrean: *«lehenena da Estatuak babesa eman behar duela hirugarrenek, enpresak ere barne direla, giza eskubideen arloan egiten ahal dituzten gehiegikerien aurka, horretarako neurri egokiak hartuz, arautegiak eginez eta justiziaren mende jarritz. Bigarrena da enpresek giza eskubideak zaintzeko betebeharra daukatela; horrek esan nahi du azkar jokatu behar dutela hirugarrenen eskubiderik ez urratzeko eta beren jardueren ondorio negatiboak konpontzeko. Hirugarrena da hobetu behar direla biktimek kalte-ordainak jaso ahal izateko bideetarako sarrera, bide hauek judizialak edo arlo judizialek kanpokoak direlarik ere».*

Dokumentuak hainbat eskaera edo baldintza jartzen ditu hastapen hauek ezartzeko. Beraz, jarraibide oinarritzeko bat da Estatuak eskatzen diena, beste gauza batzuen artean eta enpresen jatorrizko herrialdeei buruz pentsatuz, batez ere, honako hau: beren lurraldeetan egoitza duten enpresa guztiek, beren jardun guztietan, giza eskubideak errespetatuko dituztela espero dela argi eta garbi ezar dezatela; horretaz aparte, giza eskubideak babesteko beren legeak betearazi egingo dituztela, eta are enpresek giza eskubideak zaintzearen aldeko legedia ezarriko dutela ere, baita Zuzenbide Pribatuko alorrekoa ere. Logikoa denez, Estatuak eskakizunak bereziki gogor eta estuak izango dira enpresak Estatuarenak direnean edo Estatuaren kontrolpean daudenean, edo organismo publikoetatik laguntza eta zerbitzu garrantzizkoak jasotzen dituztenean (esportatzeko kreditua, inbertsioen aseguruia eta bermea eta abar), edo enpresa nazionalak gatazkek ukitutako eremuetan aritzen direnean. Azkenik, Estatuak bermatu behar dute koherentzia politikoa giza eskubideen alorrean beren funtzionarioen jokabideari dagokionez, eta nazioarteko hitzarmenetan –esate-

rako Inbertsioak Sustatu eta Babesteko Elkarren arteko Hitzarmenetan-, inbertsio kontratuetan eta enpresekin zerikusia daukaten auziak konpontzen dituzten alde askotariko erakundeetako kide moduan jokatzeko dutenean ere.

Bigarren jarraibide bat da enpresei hainbat betebeharrak eta erantzukizun ezarriko zaizkiela. Lehena da nazioartean aitortutako giza eskubideak errespetatzea, eta ondorio negatiboak aurre egitea, giza eskubideen aurkako jardunen batean parte hartu badute. Baina galdera nagusia sortzen da: Zer giza eskubide errespetatu behar dituzte enpresek? Jarraibideek bereziki aski zerrenda osatua eskaintzen dute: gutxienez Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunak biltzen dituen (Giza eskubideen aldeko Aldarrikapen Unibertsala, eta berori kodetzeko sortutako tresna nagusiak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmena eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena) eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen zortzi funtsezko Hitzarmenetan bildutakoak, lanaren hastapen eta eskubide funtsezkoen Aldarrikapenaren harira.

Alde horretatik, enpresek saihestu behar dute beren jarduerak, baina baita beste erakunde batzuekin dituzten merkataritza-harremanen ondorio diren jarduerak ere, giza eskubideen gainean ondorio kaltegarriak izatea. Hau da, beren betebeharrak merkataritza-bazkideekiko, beren balio-katearen enpresekiko harremanetara ere hedatzen direla, baita beren merkataritza eragiketa, produktu edo zerbitzuetara ere. Bera, hedatzen da, eta hau oso garrantzizkoa da, hornitzaileengana ere.

Enpresen erantzukizuna guztiei aplikatzen zaie, tamaina, arloa, eragiketa-testuingurua, jabetza eta egitura alde batera utzita. Erantzukizun horri aurre egiteko baliabideen zenbatekoa aipatu gorabeheren arabera eta hartutako jokabideen eta ekintzen ondorioen larritasunaren arabera aldatzen ahal da.

Giza eskubideen arloko erantzukizunak gauzatzeko, enpresek ekiteko hastapen batzuen arabera jokatu behar dute. Lehena da horri buruzko «konpromiso politiko» argi bat bereganatzea, zeina zuzendaritza-mailarik gorenean onetsiko baita, eta zabalduko baita, barnetik eta kanporantz.

Bigarren ekiteko hastapena da behar den azkartasunez aritzea giza eskubideei dagokien guztian. Horretarako, enpresak ebaluatuko du beren jarduerak giza eskubideen gainean daukaten eta eduki lezaketzen eragina. Gero ondorioak aterako ditu eta horren arabera jokatu behar du. Ebaluazio hau etengabea izango da, eta denboraren eta eragiteko gorabeheren arabera bilakaera edukiko du. Gainera, kasu bakoitzaren berezitasunei egokituko zaie; esaterako, «konplizitate-azkiei» tratu espezifiko eman behar zaie. Alegia, enpresa batek onura ateratzen badu beste eragile batek, hornitzaile batek, demagun, giza eskubideen gainean egiten dituen

urra-ketetik, eta hori dela-eta, urraketa horietan laguntzen duela ematen badu edo laguntzen badu, orduan konplizitateaz hitz egitea legoke. Aipatu ebaluazioa egiteko barne aditu edo/eta aditu independenteak erabiliko dira, eta ukituta suerta litezkeen taldeetako ordezkariekin kontsulta esanguratsuak egin beharko dira, baita beste interesdun batzuekin ere. Beraz, enpresentzat, batez ere eremu edo arlo jakin batzuetan aritzen direnentzat, giza eskubideen gaineko ikuskaritza egin ohi diren beste edozein ikuskaritza bezain ezinbestekoa da.

Azkenik, hirugarren ekiteko hastapena kalte-ordainarena da. Honek esan nahi du enpresa batek giza eskubideen gaineko eragin negatiboak sortu edo sortzen lagundu badu, egindako kaltea konpondu behar duela, edo konpontzen lagundu.

Azken ekiteko hastapena da konponketa-mekanismoetararako sarrerari dagokionna. Beraz, Estatuak neurri egokiak hartu behar dituzte bermatzeko, bide judizial, administratibo edo legezkoetik, edo beste edozein bidetik, beren lurraldeetan edo jurisdikzioetan giza eskubideen urra-ketak gertatzen direnean, ukitutakoek edukiko dituztela urratua konpontzeko mekanismo eraginkorrak. Konponketa hau modu as-ko-takoa izan daiteke: barkamenak eskatzea, itzulketa, birgaitzea, kalte-ordain ekonomikoa edo ez ekonomikoa, zigor-zehapenak (penalak edo administratiboak), baita kalte berririk ez gertatzeko aurreikuspen-neurriak ere.

Estatuaren organismo batek administratzen ahal ditu konponketa mekanismoak, edo erakunde burujabe batek, legezko xedapen batek hori ezartzen badu. Bestalde, judizialak edo ez judizialak izan daitezke. Aurreikusten ahal da ukitutakoek zuzenean parte hartuko dutela konponketa-erreklamazioan, edo beren izenean arituko den bitartekari baten bidez. Edonola ere, funtsezkoa da Estatuak saia daitezela mundu guztiak ezagutu eta uler ditzan mekanismo horiek zein eta nolakoak diren, nola sar daitezkeen berorietara, eta eman dezatela laguntza sarrera hori gauzatzeko.

Honetarako funtsezkoa da zenbait oztopo gainditzea, eta horretarako beharrezkoa da legeek oztopo horiek aurreikustea edo saihestea. Adibidez, gainditu behar dira xedapen batzuk, zeinek, enpresa talde bateko kideen arteko lege-erantzukizunak ziurtatzean, bai eremu zibilean nola penalean, bidea ematen baitute ez daitezela kontuak eman era egokian. Hau da, enpresa taldeen tratamendu errealista baten alde egin behar da, erantzukizuna partekatze eta transmititzeko bidea ematen duena. Gainera, beste kontu batzuen artean, kostu-sistema onargarria ezarri behar da, edo bestela erraztea aldeek abokatu-ordezkaritza ona eduki ahal izan dezaten. Oro har, ideia da aldeen artean dagoen desoreka txikiagotzen duten erakunde juridikoak eratu behar direla.

Lehen ere esan dugun bezala, Jarraibide Nagusiak, berez, ez dira lotesleak, *Soft Law* izenarekin ezagutzen direnak dira, baina Estatuetan edukitzen ari diren oihar-

tzuna, argitaratu direnetik oso denbora laburra igaro bada ere, garrantzizkoa da. Laster Europar Batasuneko Batzordeak, enpresen gizarte-erantzukizunari buruzko strategiaren barruan, kide diren herrialdeei zuzendu zitzaien, eta gonbit egin zien 2012. urtearen amaierarako Nazio Batuen Jarraibide Nagusiak ezartzeko plan nazionalak egin zitzaizen⁷. Batasuneko Estatuak lortzen ari diren emaitzak oso gorabeheratsuak izaten ari dira, eta ez oso asebetegarriak. Esaterako, Espainiak ez du egin oraindik bere plan nazionala, eta ahalegin handiak egin badira ere, plana geldirik dago.

2. *Aurrea hartzeko neurriak*

Atal honetan ikusiko ditugu nazioarteko merkataritza enpresek egin ohi dituzten giza eskubideen urraketei aurrea hartzeko zenbait neurri eta tresna. Egia da neurri hauetako batzuk nahasi eta gurutzatzen direla urraketa horiek sortutako kalteak konpontzeko neurriekin; horiek, dena den, hurrengo atalean ikusiko ditugu.

a) *Gizarte Erantzukizun Korporatiboa eta horrekin lotutako irudi batzuk*

Mekanismo juridiko klasikoak batzuetan ez direnez aski enpresa multinazionalen zenbait jokabide saihesteko, edo behar bezalako kalte-ordain bat lortzeko, doktrinak nabarmendu du gizarte zibilaren zenbait tresnak, honi dagokionez, eragin positiboa eduki dezaketela. Horien artean hauek leudeke: ekoizleen gaineko presioa, kontsumitzaileen boikota, korporazioetako zuzendaritzen gaineko presio moralak, ekin-tza zuzenak publikoki aitortzea, inbestitzaileek gizarte justiziaren aldeko helburuen alde egitea, eta oro har, enpresen gaineko merkatuen eta gizarte presioaren hainbat modu⁸.

Honetaz ari garela, lehen-lehenik gizarte erantzukizun korporatiboaz mintza gintezke⁹. Irudi hau gero eta gehiago zabaltzen ari da, bai bere baitan sartzen diren gaien kopuruari dagokionez, nola subjektu interesdunen zerrendan sartzen direnei dagokienez ere, hau da, enpresaren jardunak ukitzen dituen interesdunen

7. COM(2011) 681 azkena.

8. P. I. Blumberg, «Accountability of Multinational...», 319-320 or. A. Muñoz Fernández, L. Sales Pallarés, «Leyes internas sobre transparencia de multinacionales: los particulares como agentes de la lucha contra las nuevas formas de esclavitud», *La responsabilidad de las multinacionales...*, 109 or. eta hurrengoak.

9. O. Martín-Ortega, *Empresas Multinacionales...*, 206 or. eta hurrengoak.

zerrendari; eta zabalpen horren barruan, atzerrian egiten diren enpresa jardunetan giza eskubideak zaintzeko gizarte erantzukizun korporatiboaren proiektzioa bereziki azpimarratu da.

Borondate hau egituratzeko, enpresek tresna hauek erabiltzen dituzte, batzuetan batzuk aldi berean: A) Gizarte eta ingurumen txostenak. *Report* hauen bidez, korporazioek informazioa zabaltzen dute beren jardunek aipatu gaietan daukaten oihartzunari buruz, aurreiritziak gutxiagotzeko. Hau aski ohiko bihurtzen ari da hainbat erakunde handitan. Erakunde hauek, maiz, kanpoko adituak kontratatu ohi dituzte txostenak egiteko. B) Etiketak jartzea. Zenbait etiketak ziurtatzen dute, eta publikoki erakusten, salgaia hainbat gizarte-baldintza edo ingurumen-baldintza errespetatuz ekoitzi dela, edo ezarritako estandar gutxieneko batzuk errespetatuz. Honela, kontsumitzaileek eta merkatuan aritzen diren beste eragile batzuek beren jokabidea orientatzen ahal duen informazio bat lortzen dute. Etiketak lortzen dira GKEek, elkarteek, sindikatuek... eta abarrek egiaztapen bat egin eta gero. Prozedura honen adibideetako bat da «bidezko merkataritza» egiaztagiria, edo Kimberly egiaztagiria, bermatzen duena diamanteak era «garbian»¹⁰ lortu direla, edo eta hain ezaguna den «Arropa garbia» egiaztagiria, egiaztatzen duena zenbait baldintza bete direla, ehungintza bezalako arlo sentibera eta arazoz beteriko batean. C) Gizarte inbertsioa. Hainbat informazio-irudik balio du interesa daukan inbestitzaileari orientazioa emateko, ingurumen edo gizartearen aldetik konpromisoa daukan enpresa batean parte hartzeko. Horrek, gainera, enpresen kudeatzaileen erabakiak baldintzatzen ditu. Horren adibide bat *FTSE4Good* indizea da, Londoneko burtsako indizean inspiratua, baina zerrendatuz gizarte eta ingurumenaren eta abarren aldetik politika egokiak daramatzaten enpresak. D) Jokabide-kodeak. Aldarrikapen publikoak dira, enpresaren jarduerak ukitzen dituen pertsonen zuzenduak (langile, kontsumitzaile, hornitzaile eta abarrei), idatziz egiten direnak, zeinetan erakundeak aditzera ematen baitu konpromisoa daukala bere jarduerak aurrera eramateko orduan jokabide jakin bat edukiko duela. Gizartearen eta erosleen aurrean beren irudia hobetzeko kezka daukaten ehungintzako eta kirol-artikuluetakako enpresek askotan egiten duten praktika da (*Levi Strauss, Nike, Reebok*, e. a.). Enpresa hauek beren jokabide-kodeak beren hornitzailei eta azpikontratistei ere betearazten dizkiete. E) Ekimen askotarikoak. Askotariko ekimenetan honaino adierazi ditugun sistemak nahasten dira, baina gainera ez dute enpresa bakar bat ukitzen, batzuk baizik, eta hainbat interesdun ere bai. Ekimen hauetan Estatuek

10. P. Diago Diago, «El comercio internacional de diamantes: sistema de certificación del proceso Kimberley», *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2009, 1. lib., 1. zk., 72.or eta hurrengoak.

parte hartzen dute, kontrol-lanak eginez edo arau batzuk eman eta betearazten, askotan Nazioarteko Zuzenbidea aintzat hartuz. Adibide bat *Kimberley Prozesuan* daukagu, erabili zena izen bereko zigilua lortzeko diamanteen arloan; diamanteen arloko enpresa eta elkarte garrantzitsu gehienek bere egin dute, baina baita gizarte zibileko taldeek eta are gobernuek ere. Izan ere, gobernuek paper funtsezkoa daukate *Prozesuan*, egiaztatu behar baitute beren lurraldeetatik esportatzen diren diamanteak ez direla «diamante gatazkatsuak» edo «odolezkoak», ez direlako erabili gatazka belikoak finantzatzeko. *Prozesua* bere egiten duten enpresek halako harri bitxiekin baizik ezin dute eragiketarik egin.

Gizarte Erantzukizun Korporatiboak ukitzen ari garen gai hauetan proiektatzeak baditu argiak eta itzalak. Alde batetik, zalantzarik gabe, esan nahi du enpresak bere borondatez hainbat betebeharrak bereganatzen dituela; baina beste alde batetik, alde bateko ekimena da, eta neurri handi batean, estandarrak eta mugak modu autonomoan ezartzen eta onartzen dira. Gainera, nazioarteko eta Estatu jakin bateko arautze handiago baten aukera gisa erabil liteke, arautze hori, bere izaera dela-eta, aginduzkoa izan beharko litzatekeenean, eta betebeharrak definitu eta saihestezinagoi aurre egitea ekarri beharko lukeenean. Abantailarik handiena da enpresa azterketa eta kontrol publikoaren mende geratzen dela, baina hauek benetan eraginkorrak izan daitezkeen, behar dela gizarte zibil indartsu, kontziente eta aktiboa, eta ikuskaritzarako metodo eraginkorrak eta independenteak. Zoritxarrez, bi baldintza hauek ez dira beti betetzen.

Beste alderdi oso positibo batzuk dira, nahiz eta oraingoz garapen bidean egon eta beren presentzia aski mugatua izan, gizarte erantzukizun korporatiboaren konpromisoak batzuetan kontratista, hornitzaile eta azpihornitzaileengana luzatzen direla, baita, zenbait kasutan, betebeharrak korporatiboak giza eskubideen nazioarteko hitzarmenen arabera deskribatzen eta bereganatzen direla.

Praktika hauek Espainiara ere iritsi dira, eta nabarmen egin dira bereziki sentiberak diren alorretan aritzen diren enpresetan. Esaterako, Repsolen gizarte-erantzukizun sistemak, kritika oso positiboak jaso dituenak, hartzen dituen konpromisoen artean, giza eskubideen errespetatzeko eta Nazio Batuen Jarraibide Nagusiak zaintzeko konpromisoa hartzen du; eta indigenen komunitateekiko harreman-politika garatu behar dela aipatzen du. Inditex Taldeko Jokabide eta Praktika Arduratsuen Kodeak, 2012ko uztailekoak, biltzen ditu, beste gauza askoren artean, konpromiso hauek: nazioarteko erabakiak eta hitzarmenak betetzea, hornitzaileek giza eta lan eskubideak betetzeko beharra, eta horien urraketaren erabateko gaitzespena.

Gizarte erantzukizun korporatiboa nabarmentzen da, baita ere, beste hainbat agerpenetan, esaterako Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen

(ELGA) Enpresa Multinazionalentzako Lerro Zuzentzaileak (2011ko Berrikuspena) edo ISO 26000.

ELGAREN Lerro Zuzentzaileen inspirazio-iturria, argi eta garbi, Ruggie printzipioak dira, eta ezartzen dute enpresek giza eskubideekiko errespetua biltzen duen politika bat prestatu behar dutela. Lerro Zuzentzaileek aintzat hartzen dituzten auzien luze-zabalean, badira kontuan hartzeko bi gai, batez ere: lehena da enpresek ezin dituztela babestu beren jokabideak lanean ari diren Estatuaren legearen, lege hauek batzuetan oso bigunak eta are giza eskubideen alorreko nazioarteko betebeharren aurkakoak ere. Hori gagozkiola, Lerro Zuzentzaileen iruzkinetan hauxe esaten da: «*nazioartean aitortzen diren giza eskubideen aurkako lege eta araudi nazionalak dituzten herrialdeetan, enpresek giza eskubideak ahalik eta gehien errespetatzeko bideak bilatu behar dituzte, bertako legedia hautsi gabe...*» Hau puntu bereziki garrantzizkoa da, askotan multinazionalak ari diren Estatuaren legediaren babesa bilatzen baitute. Adibidez, Daccako (Bangladesh) *Rana Plaza* eraikina amildu zenean, 1.138 pertsona hil ziren, eta 2.000 baino gehiago zaurituta geratu ziren. Hori gertatu zenean, kanpoko ehungintzako enpresek, tartean El Corte Inglés, Inditex eta Mango zeudela, bertako legedian aurkitu zuten lan-baldintza onartezinen justifikazioa; baina ezkutatu zuten, ordea, haiek legedi hori baldintzatzen zutela, eta are oztopatzen zutela legedi horretan aldaketa positiboak sartzea. Hala ere, aitortu beharra dago, baita ere, enpresa horiek, espainiarrak ere barne zeudela, beren borondatez funts bat sortu zutela istripua gertatu eta gero, sortutako kalteei aurre egiten saiatzeko.

Azpimarratu beharreko bigarren gaia, ELGAREN Lerro Zuzentzaile hauetan, hau da: enpresek «*beste erakunde batekiko harreman baten*» ondorioz giza eskubideetan sor litekeen eragin negatiboa saihestu edo arintzeko betebeharra daukatela. Kakotx artean doan esaldia ulertzeko, testuak berak definizio hau ematen du: «*beren merkataritza-bazkideekin, hornitze-katearen beste eragileekin eta publikoak ez diren edo Estatuko beste eragileekin daukaten edozein harreman, beren merkataritza-jarduerekin, ondasunekin edo zerbitzuekin lotutakoa*». Puntu hau oso garrantzizkoa da, kontuan hartzen badugu zein den multinazionalen aritzeko modua; izan ere, hainbat mendeko enpresatan, gehiago edo gutxiago adieraziak, eta makina bat hornitzaile eta azpikontratistatan bermatzen dira.

Bere aldetik, ISO 26000 nazioarteko arau borondatezkoak, ISO (Estandarizazio Nazioarteko Erakundea) jardueren barruan, enpresei lagundu nahi die garapen iraunkorrean lagun dezaten, legea betetze hutsa gaindituz, beren gizarte erantzukizunaren alderdi bat bezala. ISO 26000 arauak aintzat hartzen duen gai funtsezko bat giza eskubideak dira, baina baita lan praktikak, ingurumena eta eragiteko praktika bidezkoak ere.

b) *Gardentasuna*

Europar Batasunean gardentasun-eredu interesgarri bat daukagu, mugatua bada ere. 2014ko urriaren 22ko 2014/95/UE Zuzentaraua da, 2013/34/UE Zuzentaraua aldatzen duena, finantzakoa ez den informazioa eta aniztasunari buruzko informazioa zabalteari dagokionez¹¹. Izan ere, erreformak berrikuntzak sartzen ditu enpresa jardueraren gardentasunaren beharrari dagokionez, giza eskubideekin lotuta dagoenean.

2014ko Zuzentaraua EBk enpresen gizarte erantzukizunari buruz egiten dituen ekintzen artean kokatu behar da, eta erakusten du Europako erakundeek zer kezka daukaten hazkundera iraunkorra izan dadin, gizarte eta ingurumenaren gorabeherak errespetatzen dituen eta inbestitzaileen eta kontsumitzaileen konfiantza handiagotzen dituen. Hori guztia kideak diren Estatu nazioetako legedien arteko koordinazioa bermatuz.

Zuzentarauaren ondorio diren betebeharrak enpresa handiei baizik ez zaizkie aplikatzen; ez zitzaien eman nahi izan betebeharrak gehiago enpresa txiki eta ertainei (ETE). Beraz, Zuzentarauak interes publikoko erakundeak diren enpresak ukitzen ditu¹², balantzea ixteko egunean gainditzen duena ekitaldian zehar, batez beste, 500 langile baino gehiago izatearen irizpidea. Baldintza berberetan, talde handi baten matrizeak diren erakundeak ere ukitzen ditu.

Aipatu enpresa horiek beren kudeaketa-txostenean sartu beharko dute finantzakoa ez den atal bat, zeinean informazioa emango baita, gutxienez, ingurumen eta gizarte auziei buruz, langileei buruz, giza eskubideen zaintzeari buruz eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari buruz; gai horietan garatzen dituzten politiken, aurkitzen dituzten zailtasunen eta emaitzen berri emanaz. Informazioak aniztasunaren gaia ere hartu behar du bere baitan. Talde handi baten matrizeak diren erakundeek informazio horixe sartu behar dute, baita ere, taldearen bilakaera, emaitzak eta egoera ulertzeko beharrezkoa den neurrian, eta ematen den politiken eta datuen berri taldearenak izango dira.

Zuzentarauaren transposizioa egiteko azken data 2016ko abenduaren 6a da, beraz gure herrialdeak atzerapen larria dauka betebeharrak hau betetzeari dagokionez. Transposizio-arau nazionalak aplikatuko zaizkie enpresei 2017ko urtarrilaren 1ean hasten den ekitaldian, edo 2017ko urte zibiletik zehar.

11. *DOUE* L 330, 2014ko azaroaren 15koa.

12. «Interes publikoko erakundeak» kontzeptuari buruz, ikus 2013/34/UE Zuzentzarauko 2.a) artikulua (*DOUE* L 182, 2013ko ekainaren 29koa).

3. Kalteak konpontzeko mekanismoak

Lehen ere esan dugu kalteak konpontzeko modurik garrantzizkoena, kaltetuentzat, kalte-ordain ekonomiko bat lortzea dela. Horretarako, normalena izaten da talde multinazionalako burua den enpresa salatzea enpresa dagoen tokiko auzitegi zibiletan, beraz mendebaldeko herrialde batean dauden auzitegietan, eta salaketan ere sartzea taldeko beste enpresa batzuk, batez ere kaltea sortu den tokian aritu direnak, horiek direlako kaltea zuzen-zuzenean sorrarazi dutenak.

Aurrera egin baino lehen, azpimarratu behar da gero eta ohikoagoa dela auzitegiz kanpoko hitzarmenak lortzea auziak saihesteko. Lehen ere ikusi dugu Inditexek Brasilen lortu zuen konponbidea, edo nola *Rana Plaza* kasuan *Rana Plaza Donors Fund* izeneko funtsa sortu zen, biktimentzat eta euren familiakoentzat ekarpenak biltzeko, eta funts horretan hainbat enpresak bere borondatez nola egin zituen ekarpenak. Hau bezalako hitzarmenak ohikoagoak dira, salaketa zer auzitegiren aurrean egin den, auzitegi horiek auzia epaitzeko gaitasuna dutela aldez aurretik aldarrikatzen dutenean. Honi dagokionez, esan behar da Shell petrolio-enpresak, giza eskubideak urratzeagatik ibilbide luze eta iluna duenak, berriki irtenbidea bilatu diela salaketa garrantzizko batzuei, auzitegiz kanpoko kalte-ordain ekonomikoak hitzartuz. Esaterako *Bodo* kasua daukagu. Kasu honetan, Nigeriako Bodo komunitate indigenak salaketa bat aurkitu zuen, pertsonai, lurrei eta laboreei kalte larriak egin zizkieten bi petrolio-kontaminazioengatik; bada, Shell enpresak, auzia amaitzeko, 55 milioi libra ordaindu zituen. Era berean, *Wawa* kasuan 13,5 milioi dolar ordaindu zizkion Ogoni herriari, galarazteko enpresaren aurkako salaketa batek aurrera egin zezan. Salaketa horren arabera, enpresak ardurak eduki zituen bederatzi aktibistaren exekuzioan, Nigerian, zeinak exekutatu baitzituzten Shellek ingurumenarentzat kaltegarriak ziren jarduerak egiten zituela salatzekeo protestetan parte hartzeagatik. Enpresa batek hori bezalako hitzarmenak egiten duenean, iritzi publikoarengatik eta ospearengatik egin ohi du, baita beharbada kopuru askoz handiagoa ordaintzeko kondena jasango duen auzi bat galarazteko ere.

Auzia saihestea ezinezkoa denean eta auzietara jotzea derrigorrezkoa denean, auzi-jartzaileek lau arazo nagusi eduki ohi dituzte: lehena izaten da auzia zer auzitegitan aurkeztu den, bada, auzitegi horren nazioarteko epai-eskumena justifikatzea. Bigarren arazoa, lehenarekin aski lotuta dagoena, multinazionalaren taldearen errealitatea frogatzea da, hau da, barne-harremanak nolakoak diren, eta enpresa atzerritarra, kaltea sortu den herrialdean aritu dena, mendebaldeko enpresa nagusiaren mendekoa dela frogatzea, auzia azken honen herrialdean aurkeztu baita. Azkenik, erabaki behar da zer ordenamendu juridiko aplikatzen zaion kasuari. Gainera, beste edozein auzitan bezala, froga behar bezala egituratzeko beharra dago.

Lehen bi arazoei erreparatuko diet, biek elkarren arteko lotura handiak dituztelako, eta ondoren auziaren garapenaren nolakoa guztiz baldintzatzen dutelako. Gehienetan, talde multinazionalaren enpresa nagusiaren aurkako auzia aurkezten denean enpresa dagoen herrialdeko auzitegietan, auzitegi honen eskuduntza aurkatu egiten du, eskudunak kaltea sortu den herrialdeko auzitegiak direla esanez, zeinak izaten baitira, baita ere, eskumendeko enpresaren herrialdekoak.

Arazo hauei ematen zaien erantzuna ezberdina da, sistema juridikoen arabera. Estatu Batuetan arau zahar batek, *Alien Tort Claims Act (ATCA)* izenekoak, batzuetan justifikatu izan du herrialde hartako auzitegiak eskudunak zirela giza eskubideak urratzeagatiko auzietan. Baina *ACTA*, hasiera batean, nazioarteko *ius cogens* delakoaren urraketak gertatzen direnean baizik ez da eraginkorra, hau da, kasu hauetan: tortura, atxiloketa arbitrarioa eta luzea, exekuzio sumarioa, gizatasunaren aurkako tratu apalesgarriak, gerra krimenak, genozidioa eta antzeko beste batzuk. Hala ere, auzitegi ipamerikarrak izan dira, beste batzuekin alderatuz gero, harberenak aipatzen ari garen auzi hauei buruz beren burua eskudun aldarrikatzeko orduan. Alde horretatik, zenbait urrats garrantzizko eman dute talde multinazionalen egituraren gaineko errezelak altxatuz, eta osatzen dituzten enpresen arteko mendekotasun-harremanen berri emanez. Beste gorabehera batzuek, besteak beste gai honetan ezagutza handia egoteak, Estatu Batuetako sistema prozesala frogari dagokionez berezia izateak, edo *punitive damages* izenekoak ezartzeko aukera izateak, egiten dute sistema estatubatuarra aurreratuena, kaltetuen nahiei erantzun erlatiboki asebetegarriak emateko orduan, batzuetan lortzen dituelarik kaltetuentzat oso interesgarriak diren hitzarmen ekonomikoak¹³.

Europar Batasuneko herrialdeei dagokienez, nazioarteko epai-eskumenei buruzko arauak Brusela I. bis izenarekin ezaguna den (EB) 1215/2012 Arautegian daude. Doktrinak adierazi du bere xedapenek ez dutela errazten Europako auzitegiak eskudunak izatea, multinazionalak egindako giza eskubideen urraketak direla-eta aurkezten diren salaketan aurrean. Horrela, nabarmendu da, Arautegiko eskuduntza-foroak, orain hutsaren hurrengoak diren salbuespenak alde batera utzirik, eraginkorrak direla baka-rik demandatuak egoitza duenean kide den Estatu batean, eskumen-foro orokorra egoitza da, eta auzikidetzaren pasiboaren kasuetan, lotura prozesaleko foroak eskatzen du demandatu guztiek Batasunean edukitzea egoitza, ez bada auzia aurkezten den Estatuko ordenamendu zehatzak beste zerbait esaten duela¹⁴.

13. O. Martín-Ortega, *Empresas Multinacionales...*, 258 or. eta hurrengoak. N. Zambrana Tevar, «Shortcomings and...», 408. or. eta hurrengoak.

14. M. Requejo Isidro, «*Access to Remedy*. Abusos contra derechos humanos en terceros Estados, ¿justicia civil en Europa?», *La responsabilidad de las multinacionales...*, 83. or. eta hurrengoak.

Hala ere, azken garaietan, Europako zenbait herrialdetako auzitegiek sententzia interesgarriak eman dituzte, aintzat hartu behar ditugunak, batez ere kontuan harturik erabaki horien edukia, nazioarteko epai-eskumenei dagokienez, une jakin batean Espainiako jurisprudentziara aldatzen ahal dela.

Hagako Apelazio Auzitegiak, 2015eko abenduaren 18an, sententzia garrantzizko bat eman zuen *Dooh* auzia eta beste auzi batzuk zirela-eta, enpresa hauen aurka: administrazio nagusia Holandan daukan R. D. Shell, egoitza Nigerian duen Shell Petroleum D C of Nigeria, eta Holandan eta Britainia Handian egoitza duten Shellen beste eskumendeko enpresa batzuen aurka. Demandatzaileek kalte-ordain bat eskatzen zuten, demandatuen Nigeriako oliobideen petrolio-isurketek lurretan, pertsonengan eta ingurumenean eragindako kalteengatik. Auzitegiak aldarrikatu zuen Holandako auzitegiak eskudunak zirela R.D. Shell enpresari dagokionez, enpresak egoitza herrialde horretan daukalako (EB 1215/2012 Arautegiko 4. eta 63. artikulua); Europako Estatuetan egoitza zuten gainerakoei dagokienez, lotura prozesalaren foroan oinarritu zen (Arautegiko 8. artikulua), eta Nigeriako eskumendekoari dagokionez Herbeheretako Zuzenbide Prozesalaren xedapen bat hartu zuen aintzat, ezartzen duena herrialde hartako auzitegiak eskudunak badira demandatu baten kasuan, eskudunak direla, baita ere, gainerako kodemandatu guztien kasuan ere, baldintza honekin: demandatu guztien ekintzak elkarrekin lotuta egotea, halako moldez non justifikatua baita elkarrekin aintzat hartzea, eraginkortasun arrazoiak direla medio.

Ingalaterrako *High Court* delakoaren 2016ko maiatzaren 27ko sententzia berri-berriaren gaia izan da Zanziako nekazari batzuek aurkeztutako demanda bat, egoitza Erresuma Batuan duen *Vedanta Resources* enpresaren eskumendekoa den eta egoitza Zanzian duen beste enpresa baten aurka, beren lurretan kalteak eragin zituelako. Auzitegiak *Vedanta* enpresaren egoitza-foroan eskuduna dela justifikatu du, eta Zanziako eskumendekoari dagokionez, justifikazioa bilatu du enpresataldearen izaeran, eta taldearen barruko finantza, kudeaketa eta mendekotasun harremanetan.

Antzeko irtenbideak bila litezke gaur egun Espainiako sisteman, demandatuak Espainian egoitza dutenean, eta eskumendekoak atzerrian, eta kalteak Espainiatik kanpo gertatu direnean. Espainiako multinazionalaren kasua, eskuduntza (EB) 1215/2012 Arautegiko 4. artikuluan justifikatzen ahal da, eta atzerriko eskumendekoen kasuan, Botere Judizialaren Lege Organikoko 22. ter. 3 artikuluan, zeinak esaten baitu: «*demandatuak batzuk direnean, Espainiako auzitegiak eskudunak izango dira baldin eta demandatuetako bat, gutxienez, egoitza Espainian badauka, akzio bakar bat egikaritzen bada, edo batzuk, akzioak metatzea komenigarria egiten duen elkarren arteko loturaren bat dagoenean, tituluaren edo eskaeraren arrazoia dela-eta*».

IV. Azken gogoetak

Ibilaldi azkar bat egin dugu nazioarteko negozioen eta giza eskubideen arteko harremanen alderdi esanguratsuetatik zehar. Ezinbestez, nire irakasgai honen izaera eta luzera dela medio, kontu garrantzizko asko kanpoan geratu dira, esaterako aurreko guztiarekin lotura handiak dituen jasangarritasunaren arazoa.

Edonola delarik ere, eremu akademikoan garen arren, gizartearen aurrean ere bagaudenez, azken gogoeta bat egin nahi dut amaitu aitzin, Espainian, eta Europako beste herrialde askotan, prestakuntza oso beharrezkoa da aipatu dugun gai honetan. Ikusi ditugun arazoei aurrea hartu eta konpontzeko, ezinbestekoa da, eta hori erakusten du, esaterako, Estatu Batuen adibideak, abokatu, aholkulari eta kanpo zein barne ikuskarien bulegoak izatea, baita giza eskubideen gaian espezializatutako beste hainbat profesionalenak ere, bereziki nazioz harago negozioen gaia ongi menderatzen dutenenak. Gainera, prestakuntza mota honek kualifikazio handiko lana eman-go lioke pertsona-talde garrantzizko bati.

Eta hau izan da dena. Eskerrik asko zuen arretarengatik.

